



Animazioaren magia ezberdintasunean hezteko

- *BBK-k eta BIZIPOZA elkarteak elkarlanean animazioko bost film labur egin dituzte, haur-ipuinetan oinarrituta, elkarteak gizarteratzeko eta aurrean dituzten erronkak ezagutarazteko helburuarekin.*
- *Materiala Bizkaiko 280 ikastetxetara bidali da ikasgeletan hezkuntza-tresna gisa erabil dezaten*

(Bilbo, 2017ko otsailaren 20a).- Ipuina oso tresna baliotsua da balioetan hezteko eta premia bereziak dituzten neska-mutikoei gainditu beharreko erronkak ezagutarazteko. Premisa horren arabera, BIZIPOZA elkarteak eta BBK-k animazioko bost film labur ekoitzi dituzte, *Irria* aldizkarian euskaraz argitaraturiko haur-ipuinetan oinarrituta; aldizkaria Irrien Lagunak Kluba kultura-elkarteak argitaratzen du.

Bost ipuinak erabilgarri daude ikus-entzunezko formatuan, eta Kale Dor Kayiko, Gure Señeak, Aspanovas Bizkaia, Euskal Herriko Down Sindromearen Fundazioa eta Gizakien Lurra elkarteek eskubideen alde egindako lana ikusgai bihurtu eta zabaldu gura dute; elkarte horiek guztiak BIZIPOZArekin dabilta lankidetzan eta, besteak beste, kolektibo ahuletako eta gizartetik kanpo geratzeko arriskuan dauden, gaixotasun arraroak edo adimen-urritasunen bat duten pertsonen ongizatearen alde jarduten dute.

Proiektu honetan garaturiko material didaktikoa ikus-entzunezko hiru jokorekin osatzen da, elkarte bakoitzaren jarduera-eremuarekin lotuak, eta Bizkaiko 280 ikastetxetara bidali da material hori, ikasgeletan teknologia berrietara egokituriko hezkuntza-tresna legez erabili ahal izateko.

Otsailaren 20tik aurrera, ipuinak eta jokoak webgune hauetan aurkitu ahal izango dira: www.bbk.eus eta www.bizipoza.eus.



Jarduera honen helburu nagusia da pertsona batzuek eguneroko bizitzan gainditu behar dituzten zailtasun bereziak ezagutaraztea era hezigarrian; izan ere, pertsona horiekin eta horientzat lan egiten dute aipaturiko elkarteek, eta lan edo behar hori balioztatu ere egin gura da.

Testuinguru honetan, bideoek eta jokoek baliabide erabilgarri izan gura dute alde batera lagatzeko tabu eta aldeztuetatik pentsaturiko ideia batzuk, eta zenbait balio zabaltzeko txikien artean, besteak beste, elkartasuna, maitasuna eta begirunea.

BIZIPOZA elkarte hogeita hamahiru elkarterekin dabil lankidetzan, eta elkarte hauek gizarte-erakuntzan dihardute Euskadin hainbat eremutan, auzolanaren bidez elkartasuna sustatzeko, eta aldi berean euskararen erabilera.

Hasiera-hasieratik, BBK-k konpromiso irmo eta aktiboa du irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarte askorekin, ekimenak eta programak bultzatzen dituztelarik bizkaitarren bizi-baldintzak hobetzeko.

Bizkaiko lurralde historikoan gizarte-kohesioa eta aukera-berdintasuna lortzea BBKren zutabe estrategikoetako bat da.

Ekimen honetako ipuinen protagonista diren elkarteak

- **Aspanovas Bizkaia:** Bizkaian minbizia duten umeen gurasoen elkarte.
- **Gure Señeak:** Gaixotasun arraroak edo/eta adimen-urritasunen bat duten neska-mutikoen familiei laguntzeko elkarte.
- **Euskal Herriko Down Sindromearen Fundazioa:** Euskal Herriko Down Sindromearen eta bestelako Adimen Urritasunen Fundazioak.
- **Kale Dor Kayiko:** Ijitoen kultura-elkarte.
- **Gizakien Lurra:** Politika, arraza, erlijio eta sexu-bereizkeriarik gabe eskubideen alde egiteko umei zuzeneko laguntza ematea.